

"Boluntariotza oso da aberasgarria"

Iñigo Azkarate Urrutia (Bergara, 1999). Industria-ingeniaritzako ikaslea. Pandemiak, etxetik irteteko aukera eman zion bezain laster, boluntario izateko pausoa ematea erabaki zuen. Ez da batere damu.

Zer da zuretzat boluntariotza?
Sentsazio ezberdinen batura. Astearteetan egiten dut nire ekarpena, eta lagundu izanaren sentsazioarekin etxeratzen naiz. Beste gauza batzuk egin beharrean, denbora aprobetxatzen dut laguntzeko. Niretzat boluntariotza oso da aberasgarria.

Zerk bultzatu zintuen pausua ematera?

Bi gauzek. Nire ama, bera ere CARITAS GIPUZKOAKo boluntario da; bere lanak atentzioa deitu zidan. Baina batez ere pandemiak. Zeresan handia izan zuen nire erabakian. Martxoko egoerak asko kezkatu ninduen, eta zerbait egin nezakeela pentsatu nuen. Beraz, bi arrazoi horiengatik erabaki nuen CARITAS GIPUZKOAKo boluntario izatea.



Boluntariotza lanak egiten hastean, ikusi duzuna, espero al zenuen?

Jende asko ezagutu dut, eta atentzioa deitu dit zenbat gauza dauden egiteko, eta zenbat ideia, proiektu, proposamen... ematen dituen aurrera CARITAS GIPUZKOAK.

Banuen zerbaiten berri baina ez nuen uste hainbeste ekimen interesgarri... egiten zirenik. Mundu berri bat ezagutu dut.

Zerk ematen dizu atentzia boluntariotza egiten ari zarenean?
Zenbat pertsona dauden mota guztietako laguntza behar dutenak, eta CARITAS GIPUZKOAn ez banengo, ez nukeen jakingo premia eta jende horren berri.

Nola animatuko zenuke lagun, ezagun... bat boluntario egitera?
Adibidez, zer egiten dudan azalduko nioke, nola sentitzen naizen CARITAS GIPUZKOAn boluntario lanak egin ostean... Egungo egoeraren berri emango nioke.
Boluntarioak toki ezberdinetan behar dira. Eguneko ordu asko, hilak izatera heldu daitezke, beraz, denbora ondo aprobetxatzeko aukera ematen du boluntariotzak.

Esan al daiteke, ahotsa entzuteak, pertsonaren aurpegia ikusi ez arren, bere egoera alai edo gogorraren berri ematen duela?
Dударik gabe! Harreran hamaika dei jaso izan ditut telefonoz, eta segituan antzematen da zer egoeretan dauden, laguntza edo beharra duten...

**"CARITAS
GIPUZKOAn langile
eta boluntarioek
pozik sentiarazten
naute"**

Eta noski, ez dute plazerez deitzen, halabeharrez baizik.

"Gehiago jaso dut eman dudana baino", esan ohi dute CARITAS GIPUZKOAn boluntarioek.

Bai, ados nago. Ez daramat denbora asko, eta nire boluntariotzak ez du esfortzu handia eskatzen baina CARITAS GIPUZKOAn langile eta boluntarioek pozik sentiarazten naute.

Eta gizarteari zer eskatuko zenioke?
Boluntario izateko jende gehiago animatzea. Gure artean dugun giro onari eustea, proiektuak, proposamenak... gauzatu daitezten.